

| TITULARRAK | ADIERAZLEAK | | |
|---|--|--|--|
| | Azken datua | Δ Urte artekoa (%) <small>*aurreko aldia</small> | Azken datuaren data |
| <ul style="list-style-type: none"> Guztira, 21.711 langabe erregistratu dira ekainean. Hau da, 2009. urtetik dagoen daturik onena. BAIren arabera, bigarren hiruhilekoa % 11,36ko langabezia-tasarekin itxi da. Guztira, 181.442 pertsona daude afiliatuta, aurreko hilabeteari dagokionez -% 1,2 da. % 1,1 areagotu dira hiriko enpresek egindako kontratuak. Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko % 0,4 jaitsi izan dira hilabetea amaitzerakoan. Jakien salmentek behera egin dute eta gainerako produktuen salmentek, aldiz, gora. Bilboko jarduera turistikoak hobera egin du, izan ere, urtez urteko igoera izan dute bidaiarien sarrerek (% 110,9) eta ostatu-gauak (% 135,0). Eskuragarri dauden logelek ere gora egin dute (% 212,5). 198 merkataritza-sozietate berri erregistratu dira, eta hori 2021eko aldi berean baino % 5,7 gutxiago da. 91 sozietate desegin dira (% 3,2 gutxiago). Bilboko aireportuan 534.574 bidaiari erregistratu dira ekainean, hau da, 2021eko hilabete horretan baino 309.562 gehiago. 2019ko ekainean erregistratutako bidaiarien %91,5 berreskuratu da. Portuko trafikoak gora egin du (% 12,6) ekainean, eta 3 milioi tona ere garraiatu dira. | <p>Lan-merkatua</p> <p>Afiliatutako biztanleak (kop.) 181.442</p> <p>Erregistratutako langabeak (kop.) 21.711</p> <p>Langabezia-tasa (BAI) 11,36</p> <p>Erregistratutako kontratuak 13.901</p> <p>Merkataritza</p> <p>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100) 111,8</p> <p>Turismoa</p> <p>Bidaiarien sarrera (kop.) 94.283</p> <p>Ostatu-gauak (kop.) 183.523</p> <p>Ekonomia eta enpresa</p> <p>Sortutako merkataritza sozietateak 198</p> <p>Deseginako merkataritza sozietateak 91</p> <p>Garraioa</p> <p>Bidaiarien aireko garraioa (kop.) 534.574</p> <p>Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) 3,0</p> | <p>-1,2*</p> <p>-1,6*</p> <p>2,07pp*</p> <p>1,1</p> <p>-0,4</p> <p>110,9</p> <p>135,0</p> <p>-5,7</p> <p>-3,2</p> <p>137,6</p> <p>12,6</p> | <p>eka.</p> <p>eka.</p> <p>II-2022</p> <p>eka.</p> <p>eka.</p> <p>eka.</p> <p>eka.</p> <p>II-2022</p> <p>II-2022</p> <p>eka.</p> <p>eka.</p> |

DATU BAT

% 11,36

Langabezia-tasa BAI

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Ekainean 343 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du -% 1,6ko beherakada egon dela hilabete batetik bestera, eta 21.711 langabe daudela udalerrian. Hau da 2009ko abuztutik dagoen daturik onean (21.007 langabe).

Langabezia-tasa soilik gizonen artean egin du behera (-% 3,6 eta 348 langabe gutxiago). Bost emakume langabe gehiago daude, langabeziak emakumeengan izan du eragin handiagoa.

Langabeziak kontuan hartutako adin-talde guztietan egin du behera. Gazteen artean, -% 0,9 egin du behera (25-44 urte artean eta 45 urte eta gehiagoko tartean -% 1,6 egin du behera).

Langabeziak behera egin du sektore guztietan: zerbitzuetan 115 langabe gutxiago, daude, eta eraikuntzan, aldiz, 79 gutxiago. Industrian 90 gutxiago daude eta lehenengo sektorean 16. Aurrez lanik ez zutenen artean 43 langabe gutxiago daude hilabete honetan.

EAEan, langabeziak -% 1,5 egin du behera. Araban -% 0,4 egin du behera, Bizkaian -% 1,3 eta Gipuzkoan -% 2,8.

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak -% 1,5ko beherakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Bartzelonak izan du beherakadarik esanguratsuen -% 2,5, eta Valentziak txikiena -% 0,7. Sevillan langabe-kopuruak gora egin du % 0,7.

EAEko hiriburuetan (G-3) langabeziak -% 1,9 egin du behera. Donostian -% 3,4 egin du behera eta Gasteizen -% 0,5. Iruñean -% 3,0 egin du behera.

Populazio afiliatua

Bilboko enpresetan afiliatutako biztanleak 181.442 izan dira ekainaren amaieran, hau da, hilabete artean 2.219 gehiago dira.

Urte arteko kopuruetan, Bilboko enpresek 5.136 enplegu gehiago % 2,9 erregistratu dituzte ekainean.

Araubideen arabera, Araubide Orokorrean 2.135 enplegu gutxiago daude maiatzean baino (-% 1,4). Langile autonomoen araubide berezian 39 afiliatu gutxiago daude eta etxeko langileen araubidean 59 gehiago (-% 0,2 eta -% 0,9, hurrenez hurren), eta gainerako araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa) 14 afiliatu gehiago daude.

Erregistratutako langabeak

Δ Hilabete artekoa

| | |
|-----------|-----------------|
| Ekaina | 21.711 pertsona |
| | % 1,6 ▼ |
| Emakumeak | % 0,0 = |
| Gizonak | % 3,6 ▼ |

Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

| | |
|-------|---------|
| Bilbo | % 1,6 ▼ |
| G-5 | % 1,5 ▼ |
| G-3 | % 1,9 ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

Populazio afiliatua

Δ Hilabete artekoa

| | |
|------------------------|------------------|
| Ekaina | 181.442 pertsona |
| | % 1,2 ▼ |
| Erregimen Orokorra | % 1,4 ▼ |
| Autonomoak | % 0,2 ▼ |
| Etxeko Sistema Berezia | % 0,9 ▼ |
| Beste batzuk | % 2,1 ▲ |

Euskal Autonomia Erkidegoan afiliatutako biztanleen kopuruak -% 1,1 egin du behera hilabete artean. Honela murriztu da: Bizkaian -% 1,4, Araban -% 1,7 eta Gipuzkoan -% 0,3.

Sektoreka, afiliatuak galdu dituzte, alde batetik, Zerbitzuek 2.346 afiliatu (-% 1,4), eta, bestetik, Lehen Sektoreak 14 afiliatu (-% 4,7); Eraikuntzak enpleguari eutsi dio eta Industriak gora egin du (137 afiliazio gehiago eta % 1,6).

Zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoak dira honako hauetan egondako beherakadak: hezkuntza (-% 7,0 eta 1.641 afiliatu gutxiago), aisialdian eta kulturaren (-% 6,8% eta 269 gutxiago) eta administrazio jardueretan (-% 4,2 eta 787 gutxiago). Bestalde, ostalaritzan ere behera egin du enpleguak (-% 2,2 eta 210 gutxiago). Ostatueta, hilabetea amaieran, % 4,0 igo da (67 enplegu gehiago), osasunean % 3,0 igo da (415 gehiago) eta merkataritzan, hilabete artean, % 1,3 igo da (240 gehiago).

Urte arteko datua Ekainean afiliazioak gora egun du urtetik urtera, 5.136 pertsona gehiago (% 2,9). Sektoreka, soilik Zerbitzuetan daude afiliatu gehiago (5.450 gehiago eta % 3,4). Industriak 240 galdu ditu (-% 2,7), Eraikuntzak 12 (-% 0,1) eta Lehen Sektoreak 72 (-% 20,2). Zerbitzuetan urte arteko gorakada nabarmendu da ostatueta, ostalaritzan eta hezkuntzan (% 25,6; % 11,4; % 7,1 gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburuko nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,4ko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute afiliazioari dagokionez. Sevillan izan da beherakadarik handiena (-% 1,1).

G-3ko hiriburueta, batera hartuta, afiliatuen kopurua guztira jaitsi egin da (-% 0,5). Soilik Gasteizen jaitsi da (-% 1,5). Donostian gora egin du (% 0,2) eta Iruñean mantendu da.

Kontratuak

Ekainean 13.901 kontratu formalizatu ziren Bilbon, hau da, % 1,1 gehiago aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (157 kontratu gehiago). Gizonei egindako kontratuak behera egin dute (240 gutxiago) eta emakumeen kasuan gora egin dute (397 gehiago) 2021eko ekainarekin alderatuta.

Adinaren arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagozkie erregistratutako kontratuen % 49,1 (6.831 kontratu); % 25,7, berriz, 45 urtetik gorakoei (3.572); eta urtetik beherakoei gainerako % 25,2a (3.498).

Sektoreka, zerbitzuen sektoreak 2021eko ekainean baino 384 kontratu gutxiago izan ditu. Industrian eta eraikuntzan behera egin dute (116 eta 111 gutxiago, hurrenez hurren).

Populazio afiliatua

Δ Hilabete artekoa

| | |
|----------------|-------------------------|
| Ekaina | 181.442 pertsona |
| | % 1,2 ▼ |
| Lehen sektorea | % 4,7 ▼ |
| Industria | % 1,6 ▲ |
| Eraikuntza | % 0,0 = |
| Zerbitzuak | % 1,4 ▼ |

Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

| | |
|--------------|---------|
| Bilbo | % 1,2 ▼ |
| G-5 | % 0,4 ▼ |
| G-3 | % 0,5 ▼ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

Erregistratutako kontratuak

Δ Urte artekoa

| | |
|---------------|------------------------|
| Ekaina | 13.901 kontratu |
| | % 1,1 ▲ |
| Emakumeak | % 5,3 ▲ |
| Gizonak | % 3,8 ▼ |

Zerbitzuetan, nabarmentzekoa da, datu absolutuetan, ostalaritzan (1.086 gehiago) eta beste zerbitzu batzuetan eta jarduera artistiko, aisialdiko eta entretenimendukoetan (187 eta 161 gehiago, hurrenez hurren) izandako kontratuen igoera. Nabarmen egin dute behera Garraioetan eta biltegiatzeetan, Merkataritzan eta Informazioa eta komunikazioak 463, 215 eta 199 gutxiago, hurrenez hurren.

Kontratazio-esparru berriarekin, % 274,0 egin dute gora kontratu mugagabeek. Aldi baterako kontratuak guztien % 69,9 izan dira.

Ekainean 10.298 pertsona kontratatu dira eta % 55,6 emakumeak dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,35 kontratu.

BAI

Bigarren hiruhilekoko BAI langabezia handiagoa da, eta landun gutxiago daude Bilbon.

Gizonen eta emakumeen artean langabezia gehiago dago, baina emakumeek soilik galdu dute jarduera eta okupazioa.

Nolanahi ere, Bilboko urte artekoarekin alderatuta okupazio gehiago eta langabezia gehiago dago (2.700 landun gehiago eta 3.600 langabetu gutxiago, duela urte bateko egoerarekin alderatuta).

Biztanle landunak

Bigarren hiruhilekoan, -% 3,4 murriztu da Bilboko biztanleria landuna. Jaitsiera hori emakumeen artean baino ez da gertatu (6.100 gutxiago); izan ere gizonen artean 800 landun gehiago egon dira hiruhilekoaren amaieran.

Hiriko biztanleria landunak soilik egin du gora eraikuntzaren sektorean (100 landun gehiago), eta Zerbitzuetan 5.200 enplegu desegin dira eta Industrian eta Lehen Sektorean 100 bana.

Hiribilduan bizi direnen enplegu-tasa % 50,67 da; emakumeen kasuan, % 44,65 da eta gizonen kasuan % 57,47.

Biztanleria langabetua

Langabeek gora egin dute (3.400 pertsona gehiago); hau da, aurreko hiruhilekoko 16,1 milatik 19,5 milara igaro dira urteko bigarren hiruhilekoan.

Igoera hori handiagoa izan da emakumeen artean (2.300 emakume langabe gehiago) gizonen artean baino (1.100 gehiago).

Udalerriko langabezia-tasa igo da, eta % 11,36an dago. Emakumeen kasuan, % 11,44ra igo da eta gizonen kasuan % 11,30raino.

Biztanle landunei egindako inkesta. BAI – II. hiruhilekoa

Δ Hiruhileko artekoa

| | |
|------------------------|------------------|
| Langabezia-tasa | % 11,36 |
| | 2,07 pp ▲ |
| Emakumeak | 3,25 pp ▲ |
| Gizonak | 0,97 pp ▲ |
| Biztanleria aktiboa | % 1,1 ▼ |
| Biztanle landunak | % 3,4 ▼ |
| Biztanleria langabetua | % 21,1 ▲ |

MERKATARITZA

Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak urte arteko -% 0,4 jaitsi dira ekainean lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 3,5 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 2,4 egin dute behera 2021eko ekainarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 2,6 igo dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,7ko gorakada izan du, eta horrela jarraian 16 hilabete baino gehiagotan izan ditu gorakadak.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban (-% 2,3eta Gipuzkoan (-% 4,7). EAEn, orokorrean, -% 2,0 egin dute behera.

Saltoki handiak Bizkaia

Δ Urte artekoa

| | |
|-------------------------|----------------|
| Ekaina | 111,8 |
| Salmenta-indizea | % 0,4 ▼ |
| - Elikadura | % 2,4 ▼ |
| - Gainerako produktuak | % 2,6 ▲ |
| Landunak | % 0,7 ▲ |

TURISMOA

Bilboko hotelen sarean 183.523 ostatu-gau erregistratu dira ekaineko hilabeterik onenean; hau da, 105.440 ostatu-gau gehiago egon dira aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (% 135).

Bidaiarien sarrerak ere antzera egin du gora. Atzerriko bidaiarien artean gehiago egin du gora, izan ere, atzerriko bidaiari gehiago daude.

Estatuko turistak hiribilduko hoteletan ostatu hartutako bidaiari guztien % 48,7 izan dira; Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 26,5), gero EAEkoak (% 15,6), Kataluniakoak (% 14,4) eta Andaluziakoak (% 8,5). Atzerriko bidaiariei dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Alemania (% 13,7), Frantzia (% 12,1), AEB (% 10,4) eta Erresuma Batua (% 10,3).

Batez besteko egonaldia 1,95 ostatu-gau izan da.

Eskuragarri dagoen gela bakoitzeko 85,3 euroko diru-sarrerak egon dira ekainean, hau da, gora egin dute urte artekoari dagokionez, eta 2019an hilabete horretan lortutako emaitzak (84,9 euro) gainditu dituzte.

Aurten, urtarriletik ekainera, dagoeneko 814.577 ostatu-gau lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 202,4 gehiago izan dira, 545.199 ostatu-gau gehiago, alegia.

Ostatu-gauak

Δ Urte artekoa

| | |
|---------------|---------------------------|
| Ekaina | 183.523 ostatu-gau |
| | % 135,0 ▲ |

Bidaiarien sarrera

Δ Urte artekoa

| | |
|---------------|-----------------------|
| Ekaina | 94.283 sarrera |
| | % 110,9 ▲ |

Benchmarkina. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urte artekoa % 82,3 hazi da. Behera egin du Donostian (-% 97,2), Gasteizen (-% 59,3) eta Iruñean (-% 66,8).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 155,5eko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik handiena (% 252,1).

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

| | |
|--------------|-----------|
| Bilbo | % 135,0 ▲ |
| G-5 | % 155,5 ▲ |
| G-3 | % 82,3 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

ENPRESAK

Sozietate berriak

2021eko bigarren hiruhilekoan Bilbon 198 merkataritza sozietate berri sortu dira, eta horrek -% 5,7ko beherakada dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean (12 sozietate gutxiago datu absolutuetan). Sektoreka, zerbitzuetan 165 sozietate sortu dira, hau da, aurreko urtean baino 3 gehiago; industrian 17 sortu dira eta eraikuntzan 16 (hurrenez hurren, 8 eta 6 gutxiago).

Lehenengo hiruhilekoan 91 sozietate desegin dira, aurreko urteko hiruhileko berean baino -% 3,2 gutxiago (3 gutxiago). Desegindako sozietateen artean, % 73 zerbitzuen sektorekoak dira, % 21 eraikuntzakoak eta % 5 industriakoak.

Aurten, urtariletik ekainera 414 sozietate eratu dira, eta 230 desegin dira, % 11,9 eta % 19,2 gehiago, hurrenez hurren, 2021eko aldi horrekin alderatuta.

Merkataritza sozietate berriak

Δ Urte artekoa

II. hiruhilekoa

| | |
|------------------------------|---------|
| Sortutako sozietateak | % 5,7 ▼ |
| Deseginda | % 3,2 ▼ |

GARRAIOA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 534.574 bidaiari erregistratu ditu ekainean; beraz, urte arteko % 137,6ko igoera izan du (2021eko ekainean baino 309.562 bidaiari gehiago). Gainera, 2019. urteko bidaiarien % 91,5 berreskuratu da.

Bidaiari gehiago daude estatuko zein nazioarteko hegaldietan. Zehazki, estatuko hegaldietan 137.606 bidaiari gehiago erregistratu dira, eta nazioartekoetan, aldiz, 137.606. Azken horren arabera, gainera, ehunekoari erreparatuz gero, hobeto suspertu da kopurua (% 647,7).

Egindako hegaldien kopurua, helduerak eta irteerak batuta, 4.515 hegaldikoa izan da ekainean. Garraiatutako salgaien kopurua 72.207 kg izan da.

Aurten, dagoeneko 2.132.194 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 295,9 gehiago izan dira, 1.593.638 bidaiari gehiago, alegia.

Aireko garraioa

Δ Urte artekoa

Ekaina

| |
|------------------|
| 534.574 bidaiari |
| % 137,6 ▲ |

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), C % 172,0 gehiago zenbatu da 2021eko ekaineko bidaiariekin alderatuta. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 129,9 gehiago egon da. Hiru aireportuetako kopuruak gora egin du.

Portuko garraioa

Bilboko Portuak 3,0 milioi tonako trafikoa ekainean, hau da, % 12,6 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan ekainean salgaien % 60,9 izan da, eta urte arteko % 25,2ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoak -% 20,5 egin zuen behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), baina salgai orokorrek gora egin dute (% 7,0).

Bidaiarien itsas garraioan, 29.769 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran. Ekainean 12 itsas bidaia eta 16.896 itsas bidaiari erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik ekainera, 16,0 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko epe berean baino % 4,4 gehiago.

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

| | |
|---------------|-----------|
| Bilbao | % 137,6 ▲ |
| G-5 | % 172,0 ▲ |
| G-3 | % 129,9 ▲ |

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruña

Portuko garraioa

Δ Urte artekoa

| | |
|-------------------|-----------------|
| Ekaina | 3,0 milioi tona |
| | % 12,6 ▲ |
| Bidaiariak | 29.769 bidaiari |
| | % 1.973 ▲ |

ADIERAZLEEN TAULA


| | Azken datua | Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia | Azken datuaren data |
|---|-------------|---|--------------------------------|
| Lan-merkatua | | | |
| Erregistratutako langabeak (kop.) | 21.711 | -1,6* | 2022ko ekaina |
| Afiliatutako biztanleak (kop.)** | 181.442 | -1,2* | 2022ko ekaina |
| Erregistratutako kontratuak (kop.) ** | 13.901 | 1,1 | 2022ko ekaina |
| Biztanle aktiboak (milakotan) | 171,8 | -1,1* | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Biztanleria landuna (milakotan)** | 152,3 | -3,4* | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Langabeak (milakotan) | 19,5 | 21,1* | 2022ko II. hiruhilekoa |
| BAlko langabezia-tasa (%) | 11,36 | 2,07* pp | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Merkataritza | | | |
| Kontsumoko prezioen indizea (KPI)*** | 110,1 | 10,0 | 2022ko ekaina |
| Afiliatutako pertsonak** | 19.419 | 1,3* | 2022ko ekaina |
| Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)*** | 104 | 3,9 | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak | 111,8 | -0,4 | 2022ko ekaina |
| Turismoa | | | |
| Bidaiarien sarrera | 94.283 | 110,9 | 2022ko ekaina |
| Ostatu-gauak | 183.523 | 135,0 | 2022ko ekaina |
| Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiari) | 1,95 | 11,4 | 2022ko ekaina |
| Hoteletako okupazio-maila, plazak (%) | 62,4 | 31,0 pp | 2022ko ekaina |
| Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€) | 85,26 | 212,5 | 2022ko ekaina |
| Ekonomia eta enpresa | | | |
| Bizkaiko BPG (kateatutako bolumenaren indizea) | 110,0 | 5,7 | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Industria ekoizpena (indizea)*** | 121,5 | 9,3 | 2022ko maiatza |
| Merkataritza sozietate berriak | 414 | 11,9 | 2022ko I. eta II. hiruhilekoak |
| Zerbitzuetako salmentak (indizea)*** | 103,2 | 14,3 | 2022ko II. hiruhilekoa |
| Garraioa | | | |
| Bidaiariak airez garraiatzea | 534.574 | 137,6 | 2022ko ekaina |
| Hegaldiak | 4.515 | 90,1 | 2022ko ekaina |
| Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan) | 3,0 | 12,6 | 2022ko ekaina |

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


BAI




Populazio afiliatua




Erregistratutako langabezia-tasa



Hotel gauak



Merkataritza sozietate berriak



Aireportuko bidaiariak

